



Basque Writing 16

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO PROTOKOLOA



Kursaal Jauregia, Donostia, 2016ko abenduaren 17an

Ia hamabost urteko ibilbidean, mundu osoko dozenaka lagun egin ditugu PEN bilera eta kongresuetan. Beste zentroetako esperientzietatik ikasi, eta geureak irakatsi. Bide horretan, alabaina, gure txikitik abiatuta eta konplexu barik, gure hizkuntza, kultura, literatura eta ekimenen berri eman izan dugu. Ahoz zuzenean zein *Basque Writing* honen bidez, baita noizean behin bestelako egitasmo batzuekin ere.

Zenbaki honetan dakargunak bestelako dimentsio bat dauka. Duela hiru zenbaki Hizkuntza-aniztasuna genuen aipagai, Donostia Europako Kultura Hiriburua zela baliatuta, eta euskararen eta gainontzeko hizkuntzei buruz egindako ekimenak genekartzan *Basque Writing*. Horietan nabarmenena, Kultura Hiriburutzaren amaierarako prestatutako kongresua zen, eta handik irtetea espero zen Protokoloa. PENen egin ohi dugun legez, elkarlanetik eta behetik gorako lanean, Europako gizarte zibila aktibatu eta nork bere hizkuntzaren eremuan egiten duen lanetik bildutako esperientzia batu eta aurrera begira estrategia orokorra diseinatzea zen helburu.

Orduan helburu zena, dokumentu sendo eta itxaropentsua da orain. Europako hizkuntza txiki eta gutxi-tuak bizi, hazi, iraun eta txikitasunean baina normaltasunez

bizitzeko egin beharreko urrats-zerrenda luze bat. Bi urteko lanaren fruitua, 20 urte

lehenago Bartzelonan egindako Hizkuntza-Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren jarraipen eta, era berean, egikaritze praktikoa da. Euskaldunon ekimenez eta Euskal Herritik abiarazitakoa, baina geuk bakarrik ezin egingo genukeen lana da. Europako hizkuntzekin lanean diharduten ehunka elkar-tek hornitu duten lana da. Eta, atzean, adierazpen askatasunaren eta hizkuntza-aniztasunaren defentsan eskarmentu luzea daukaten erakundeak. PEN esaterako, noski. Egindako lanaz harro egoteko moduan gaudela uste dugu. Bideak eman du fruiturik, baina ez zen helmuga; edo helmuga bazen, abiapuntu ere bai, azken bilera eta kongresuan ikusi dugun legez, Protokoloa hedatzea baitagokigu orain. Europa eta mundua pixka bat atseginago eta orekatuagoa izan dadin, denok gure hizkuntzaren koloreaz mar-
gotzen badugu.



Urtzi Urrutikoetxea
Basque PEN



DEKLARAZIOTik PROTOKOLOra

BARTZELONAtik DONOSTIara

Donostiako Protokoloa sinatu baino hogeit hamar urte lehenago, 1996ko ekainean, 61 GKEk, 41 PEN taldek eta hizkuntza-eskubideen eremuko munduko 40 adituk **Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala** onartu zuten. PEN Internationalak 1993an Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala idazteko erabakia zegoen atzean. Eta erabaki ausart hark ondorio arrakastatsua izan zuen, eta Deklarazioak ekarpen berritzailea egin zien bizikidetzari, demokraziari eta bakeari. Izan ere, hizkuntza komunitateen arteko berdintasuna helburu duen dokumentua mundu berri eta justuago baterako urratsa zen.

2016an Donostia Europako Kultur Hiriburuetakoa bat izango zela kontuan hartuta, euskararen berreskurapenaren alde lan egiten duten 40 eragilearen bilgune Euskararen Gizarte Erakundeak **KONTSEILUAK** aukera bat ikusi zuen urrats berria egiteko. 1996an adostutako Deklarazioa berreskuratu eta hurrengo urratsak zehazteko prozesu bati ekitea proposatu **Donostia 2016** Fundazioari eta bide horretan hasi zen 2015ean.

Hizkuntza eskubideak gizakiaren oinarritzko eskubideetan kokatu behar ditugu. Hizkuntza errealtatea ezin zaio lotu bakarrik dimentsio komunikatiboari; ezin dira kulturetatik bereizi. Harremana hori ukatzean, hiztunen eta herritarren duintasunari muzin egiten zaio. Hizkuntza aniztasuna aldarrikatzea pertsonen eskubide guztien defentsarako ekarpena da.

Gizarte ongizatean, bakean eta elkarbizitzan laguntzeko ekarpena da garatu dugun dinamika, tresna bat. Izan ere, hizkuntza komunitateekiko jardun demokratikoak giza baldintza guztiekiko errespetua bermatuko du.

Europa osoan komunitateak euren berezko hizkuntzetan bizitzeko antolatu dira. Ehunka dira hizkuntza gutxituen garapenean lanean diharduten gizarte erakundeak. Egitasmo hau horien bilgune izan da, gizarte zibila buru izan dadin hizkuntza aniztasunaren garapenean. Gizarte eragileen, antolakundearen eta adituen arteko prozesu bat zabaldu zen, hizkuntzen arteko berdintasuna bermatzeko protokolo bat jorratzeko eta horren ondorioak nazioarteko goi bilera batean aurkezteko.

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa (HEBP) zenbait urtetan hainbat lantaldek garatutako adoste prozesuaren emaitza izan zen; ikuspegi zientifikoa, akademikoa eta soziala uztartuz. Hizkuntza gutxituen egoera irauli eta hizkuntza komunitateen arteko berdintasunean oinarritutako Europa eraikitzearen tresna.

Horregatik, proiektutik sortu zen ondare nagusi hori, protokoloa, nazioarteko foro eta instantzietara eraman da orduan, izaera anitzeko erakundeek hizkuntza aniztasunarekiko konpromisoa arautzeko erabil dezaten.

Protokoloaren prozesuan **hiru helburu nagusi** zeuden:

1. Hizkuntza aniztasuna bermatzea eta hizkuntzen garapena ziurtatzea, **elkarbizitza eta bakerako oinarri funtsezkoak** direla aldarrikatzea.

2. **Hizkuntza berdintasunaren alde** eta desabantaila egoeran dauden hizkuntzen garapenerako tresna eraginkorra sortzea.

3. **Hizkuntza komunitateak** prozesu honetan subjektu gisa agertzea eta gizarte kudeaketa justu horren berme dela aldarrikatzea.

Kontseiluak eta **DSS2016 Fundazioak** sustatu zuten ekimena, eta talde nazioarteko sei erakunde zituen talde Antolatzaile bat izendatu zuten prozesu guztia zuzentzeko, giza eskubideen, hizkuntza eskubideen, hizkuntza aniztasunaren eta hizkuntza gutxituen sustapenean diharduten erakundeek osatuta: **PEN INTERNATIONAL**, **ELEN** (European Language Equality Network), **LINGUAPAX**, **UNPO** (Unrepresented Nations and Peoples Organisation); **ECMI** (European Centre for Minority Issues) eta **CIEMEN** (Centre International Escarré per a les Minories Ètniques y les Naciones).

Protokoloa prestatzeko Batzorde Zientifikoa berriz, erreferentziazko 17 adituk, intelektualek eta ikertzaileek osatu zuten, diziplina ugarietako eskarmentua ekarri, eta Protokoloan ikuspegi guztiak jasotzea bermatzeko.

Eta ezin ahaztu, Europako hizkuntza komunitateen inguruan eratutako gizarte zibil antolatuen lana. Bizitza demokratikoago batera jotzeko nahiak gizarte zibilaren aldarrikapena eta bizi-gogoa suspertu ditu eta, horri esker, lortu herritarren sentsibilitatean eragitea. Gizarte eragileek garrantzi handia izan dute Protokoloan. Europako milioika herritarren bozgorailu diren eragileek adostutako tresna bat sortzea zen helburua. Errealitate desberdinetatik abian, baina helburu bertsuekin dihardute eragileek: hizkuntzaren normalizazioa. Eta prozesuak elkarrengandik ikasteko ere balio izan du.

BIDEA ETA EMAITZA

Prozesu interesgarri bezain zirrargarria izan zen. Europa osoan ehun eragile baino gehiagorekin izandako harremanek, haien proposamenak bidaltzea eta ekarpenak jasotzea ekarri zuten: Irlandan, Frisian, Galesen, Oslon, Asturiasen, Katalunian, Galizian, Danimarkan eta beste hainbat tokitan egon ginen eragileei proiektua aurkezteko. Friuliera, sardiniera, tatarera, korsikera, bretoiera, okzitaniera eta beste dozenaka hizkuntzen garapenean alde lan egiten duten eragileek ere ekarpenak helarazi zizkiguten. Europako gizarte eragileen ahalduzko kolektibo ikaragarria izan da. 2017. abenduaren 17an Donostian, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren aurkezpenean ginen. Gerora egindako bidea ere hemen ikusiko dugu. 1993an PEN CLUBek **Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala** sortzeko erabaki horretatik mende laurden joan da, eta jauzi handia egin dugu ekarpen kualitatiboa eransteko.



Carles Torner

PEN International-eko zuzendari exekutiboa

Donostiako Protokoloak Bartzelonako Deklarazioan dauka abiapuntua, duela bi hamarkada. Hura ahalbidetu zuten pertsonetako bat izan zinen. Nola gogoratzen duzu?

Donostian egotea Protokoloa onartzen denean oso hunkigarria da. 1993an iritsi berria nintzen nire zentrura, PEN Kataluniara, eta Hizkuntza Eskubideen batzordearen bilera antolatu behar nuen Mallorcan. Han zentro bakoitzak bere zailtasunak azaltzen zituen, Errumanian ziren hungariarrek, galesek zein samiek. Konturatu ginen komunitate bakoitzari buruz kexuka ari ginela. Ortzemugan gauza zabalagoren bat behar genuen. Bileran aipatu nuen Genevan egon nintzela beste erakunde batekin, Rigoberta Menchu ezagutu nuela eta herri indigenen deklarazio unibertsalaren proiekturako hasierako lanei buruz hitz egin genuen. Hala heldu zen ideia kolektibo hori: *"egin dezagun hizkuntza-eskubideen deklarazio unibertsalaren zirriborroa, ez gaitzezen beti gure egoeraz kexuka egon, baizik eta mundu osoko hizkuntza komunitateentzako eskubide unibertsal baten defentsan"*. Oso ideia ona izan zen: prentsaurrekoaren biharamunean, Kataluniako Unescotik deitu zidaten, eta nire harriidurarako, hilabete baino gutxiagoan gizarte zibileko hainbat erakundek ateak zabaltu zituzten, finantziabidea lortu genuen eta Hizkuntza-eskubideen deklarazio unibertsala marrazteko prozesuari ekin genion.

Kataluniatik mundura.

Mundu osoko ordezkariekin batzorde zientifikoa eratu genuen. Unesco oso interesatuta egon zen hasieratik, batzorde zientifikoaren lan guztiak segitu zituzten. Bi urtez lan egin zuten, eta hamaika zirriborro egin zituzten kontinente guztietako ekarpenekin, aymarak, maiak zein Borneoko Kadaza-Dusunak, eta nazioarteko erakunde nagusiak, hala nola, herri indigenen munduko kontseilua eta atzerriko hizkuntzetako irakasle elkarteak. Sare harrigarri horrek prozesu bat sortu zuen, pozgarria da orain ikustea zelan garatu zen. 1996an hizkuntza-eskubideen munduko kongresua egin genuen Bartzelonan. Eta hizkuntza-eskubideen deklarazio unibertsala onartu genuen.

Eta hura onartu ondoren...

Unescori eman genion. Oso dokumentu interesgarria izan da, baina ez erraza, hautsak harrotu zituen. Unescok gordeta dago baina ez kide diren estatuek onartuta, Unescok ongi etorri egin dio baina ez da dokumentu ofiziala, estatu nagusiak aurka direlako, hala nola Indonesia, Turkia eta beste batzuk. Edonola ere, hor dago, eta hizkuntza-legeen zirriborroak egiteko marko bezala erabili izan da Paraguain, Bolivian, Kolonbian eta beste leku batzuetan. Hasieran bertan 70 hizkuntzatar itzuli zen, tartean nahuatl eta Zapoteco Mexikoko bi hizkuntzatar. Mexikoko Parlamentuan ibili zen eta eztabaida handia piztu zuen.

Protokoloak Deklarazio unibertsala eguneratzen du hizkuntza-komunitate bakoitzean.

Eta 20 urte geroago, Deklarazioa Protokolo bihurtzen da.

Deklarazioak proiektio bikaina izan du, eta orain Protokoloak oso era berezian egneratu du: ez nazioartean soilik, baita Protokoloa eta agenda garatzen diren hizkuntza-komunitate bakoitzean ere.

Hizkuntza-komunitate bakoitzari agenda bat ematen dio hizkuntza-eskubideak osorik lortzeko. Marko unibertsal bat ezarri zen estatuek hizkuntza-eskubideen babes eta garapen unibertsal hau ezartzeko, baina marko hori hizkuntza komunitate bakoitzera egokitu behar zen. Protokoloaren onena da tresnak ematen dizkiola komunitate bakoitzari agenda bat eratzekeo gizarteko alor guztietan hizkuntza-eskubideak sustatzeko. PENen defendatzen dugu komunitate bakoitza eskubideen subjektu dela eta bere hizkuntza garatzeko gaitasuna duela, gizarteko alor guztietan: eskola, hedabideak, justizia, baina horrek agenda zehatza behar du kasu bakoitzean, hizkuntza-komunitate bakoitzaren errealitatearen eta herrialdearen legeen arabera.

Protokoloa bilera askoren eta nazioarteko kongresu baten amaiera izan zen.

Donostiako kongresua bikaina izan zen. Benetan txundigarria zen: Kursala beteta Europa osoko gizarte zibileko 200 ordezkariarekin, haietako batzuk mapan kokatzen ere ez zegoen erraz. Irudi hori gelditu zitzaidan: Europako ostadarreko 200 kolore Kur-saalean batuta, prozedura berean elkartuta gobernuetako alderdiak jar-tera eskatzeko, Donostiako Protokoloa aldarrikatzen eta erakusten ez dela testu soil bat, atzetik oinarri-oinarritzko mugimendu bikain bat dauka hizkuntza komunitate bakoitzean, eta Europa osoan hizkuntza-eskubideen alderdi babesa behar du.





Protokoloa: Kronika

Bi urteko lana zekarren atzetik, eta ezustekoak tarte txikia zeukan, baina horrek ez zuen egunaren emozioa gutxitu. Bertan ziren fruituak: Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa edo "Donostiako Protokoloa" aurkeztu zen 2016ko abenduaren 17an, ekitaldi solemne eta, halaber, hunkigarri batean.

Hizkuntza eskubideen eremuan lehen aldiz lortu zen horrelako adostasun zabala biltzen zuen dokumentu bat. Aurrekaririk gabea, sorreratik bertatik zeukan dimentsioagatik, parte hartze handi batek hauspotuta: 400 ekarpenetik gora eta 100 eragile baino gehiagoz osatutako lehen talde atxikitzailearen emaitza zen. Eta horiek denak Donostiako Kursaal jauregian izan ziren protokoloa sinatzeko.

Donostia 2016ko ekitaldietako azkenetakoa zen, eta ezagunenetakoa halaber, Kultur Hiriburutzaren urteak utzi duen legatu garrantzitsuenetakoa. Kontseiluak sustatuta eta nazioarteko eta Euskal Herriko eragileen ekarpenarekin, miloika hitzunen eskubideak bermatzeko bide orria abian jarri zen.

Donostian ez ziren askok, handik aurrera protokoloa sinatzeko konpromisoa zuten, eta ekitaldiak berak beste hizkuntza eragile askoren interesa piztu zuen. Bazen hutsunerik Donostiako ekitaldian: erzya hizkuntza gutxituko ordezkariak, Protokoloan parte hartu arren, ezin izan zuen inor bidali ekitaldira, Errusiako gobernuaren debekuegatik. Oztopo, zapalkuntza eta debekuek are garrantzitsuago bihurtu zuten dokumentua, horratik.

Ametsa zirudien berriki arte, duela bi hamarkada Bartzelonan egindako Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren hurrengo urratsa egia bihurtzea: Deklarazioan zehaztutako eskubideak bermatzeko agiria osatzea. Donostiako protokoloak tresna praktikoa izateko helburua du, eguneroko "bidegabekeriak ez gertatzeko" bokazioa dauka, eta 185 neurri zehaztu dituzte bi urteko lanaren ondotik, hitzunen eskubideak ziurtatzeko.

Eta horrek guztiak oso argazki indartsua utzi zuen Donostiako Kursaallean. Hizkuntza gutxituen alde, sarritan eremu bakartuetan diharduten eragileen ahalduntzen eta elkar hartzeko irudiak. Euskal Herrikoak gehienak, noski, baina Europa osoko ordezkariak zabala ere han zen. Eta denen artean, konplizitate oso berezi bat. Hala eskatu dute, batera: eskubide berberak izatea hizkuntza batzuetako eta besteetako hitzunek. Hori bideratzeko, hizkuntza bakoitzean kaiera bat idaztea aurreikusten du protokoloak. Baina hurrengo urratsa behar du horrek. Lehendabizikoa, abiatze indartsu horren argazkia, Protokoloaren sinadura zen. Konpromiso, konplizitate eta pazientzia handiz egindako lanaren fruitua.

"Ospatzeko eguna" zela nabarmendu zuen Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiak eta Euskal PENeko kideak. "Gai izan bagara errealtate horren desberdinei erantzuteko, bagara gai geure hizkuntzetan bizitzeko baldintza egokiak sortzeko. Prest daude gizarte justuago bat eraikitzeko" esan zuen. Bakea eta bizikidetzak aipatu zituen, oinarritzko eskubideen baitan bi kontzeptu horiek sustatzeko.

Linguapax, PEN International, Ciemen eta nazioarteko erakundeetako beste ordezkariak hartu zuen hitza, hurrengo orrialdean irakur daitezkeen testimonioekin. Xabier Paya Donostia 2016ko kultura programazioaren zuzendariak kultura hiriburutzak utziko duen ondare garrantzitsuenetako bat Protokoloa izango dela azpimarratu zuen. Ipar Amerikako mandan hizkuntzako azken hitzuna, Edwin Benson, aipatu zuen Payak: egun batzuk lehenago hil zen, 85 urterekin, eta harekin hil zen mandan hizkuntza ere. Sinatutakoa indarrean jartzeko eskatu zuen, hizkuntzen galerari aurre egiteko: "Sinatu bai, baina bete dezagun. Horrela bakarrik utziko baitiugu mandan hizkuntza hil egin dela bezalako berriak irakurtzeari".

Homogeneizazioaren sasoiotan, norberaren garrantzia azpimarratu zen behin eta berriz ekitaldian. Protokoloaren aurkezpenaren bezperatan, Kursaallean bertan Hizkuntza Aniztasunaren Foroa egin zen. Europako hizkuntzetako aditu eta ekintzaileak eta euskalgintzako eragileak elkarrekin izan ziren, baita ehunka herritar eta ordezkari politiko eta sozial ere, ekitaldirako gonbidapenak amaitu arte. Joan Mari Torrealdai euskalgintzako pertsonarik kuttunenetakoa eta lan isilean gehien nabarmendu denetakoa azken 50 urte baino gehiagoan, Protokoloak sortutako sinergieie erreparatu zien, eta "norbere kasa ibili beharrean", horiek baliatzeko dei egin zuen: "kudeaketa ona badago, hizkuntza komunitate aktiboak egiten ditu lortzen handienak".

185 NEURRI, 11 PRINTZPIO, 9 ARTIKULU

Donostiako Protokoloak **11 printzipio identifikatu ditu** (hizkuntza eskubideak, hizkuntzagatik diskriminazioa, hizkuntzaren estatua: hizkuntza ofizialak, legeak, neurri zuzentzaileak, baliabideak, neurri positiboak, unibertsaltasun printzipioa, zeharlerrotasuna, hizkuntzaren arnaguneak eta memoria historikoa) eta **9 artikulua**:

1. artikulua: SUBJEKTUAK:

Hizkuntza eskubideak indibidualak eta kolektiboak dira. Edozein gizarte, historian zehar lur eremu zehatz batean finkatuta, bere burua heritizat duena, eta hizkuntza komun bat garatu duena.

2. artikulua: HELBURUAK

Aniztasuna bermatzea eta garapena ziurtatzea, desabantailan daudenen garapenerako tresna eragingarria sortzea eta hizkuntza komunitateak subjektu izatea.

3. artikulua: BALIOAK

Elkarbizitza eta bakea, aniztasuna, berdintasuna eta eskubideak.

4. artikulua: GIZARTE ERAGILEAK GILTZARRI

Bizitza demokratikoago batera jotzeko nahiak gizarte zibilarren aldarrikapena eta bizi gogoa susper-tu ditu, eta horri esker lortu da sentsibilitatean eragitea.

5. artikulua: ERREFERENTZIAK

1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, 1950eko Europako Kontseiluaren Giza Eskubideen eta Oinarritzko Askatasunaren Hitzarmena, 1996an Bartzelonan onartutako Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala eta Unescok 2003an onartu zuen "Hizkuntzen bizitasuna eta desagertzeko arriskua" izeneko txostena.

6. artikulua: EGITURA

Printzipio orokorrak, erakundeak, hezkuntza, sozioekonomia, onomastika, hedabideak eta teknologia berriak eta kultura. Horiek guztiak betetzen direla bermatzeko, gainera, neurriak zehaztuta daude.

7. artikulua: JARRAIBIDEAK

Komunitateetako gizarte eragileek zehaztuko dituzte bai neurrien hurrenkera zein denboralizazioa. Kaierari esker betetze mailaren jarraipena egin ahal izango dute. Aukera izango dute tokiko, eskualdeko edo Estatuko botere publikoekin lanketa egiteko.

8. artikulua: JARRAIPEN BATZORDEA

Lehen jarraipen batzordea Talde Antolatzaileko kideek osatuko dute, eta hurrengoak Jarraipen Batzordeak zehaztuko ditu. Horiek dira Ciemen, Ecmi, Linguapax International, Elen, Unpo eta PEN International eragile eta elkarteak.

9. artikulua: HARTZAILEAK

Protokoloa Nazio Batuetako, Europako Kontseiluko eta Segurtasun eta Lankidetzarako Europako Erakundeko hainbat goi ordezkari bida-liko zaie.



Protokoloa: Testigantzak

JOAN MARI TORREALDAI (JAKIN):

Hizkuntza gertakari soziala, komunitatearen ikur eta lanabes, batetik bestea gabe, hizkuntzak komunitatea gabe hutsala du bere funtzio soziokulturala. Ezin egokiago dio Protokolo honek: hizkuntzak ezin dira kulturetatik bereizi, ezin da bere herriatik bereizi (...) Gaurko elkarretaratzeak balio sinboliko handia du, erreala, izan dezala tamaina berekoa.



PAUL BILBAO (KONTSEILUA):

Gaitasuna izan dugu, etorkizunera begirako bide-orri bat zehazteko, eta benetan, bihotzez, gai izan bagara, protokolo hau sortzeko, gizarte-eragileok gai gara gure hizkuntzan bizitzeko baldintza egokiak sortzeko. Bejondeizuela, bejondeigula!



XABIER PAYA (DONOSTIA 2016):

Askotan bizikidetzaren eleaniztasuna oximoron edo antitesi bat da. Guk gaur hemen demostratu nahi dugu epiteto edo pleonasma dela, ez dagoela bizikidetzaren eleaniztasunik gabe, eta eleaniztasuna ez dela posible izango bizikide ez bagara. Ez badugu elkar ulertzen ez gara elkarrekin biziko.




MARIA DO PILAR GARCIA NEGRO

(GALIZIA): Espero bezala, demokrazia deklaratorik edo formalekin demokrazia exekutibo edo erreala pasa gara, eta hala behar du izan, bestela ez gure nahi eskubideak egotea, gauzatuko ez ditugun baldintzarekin. Banako hizkuntza eskubideak behar bezala aitortu daitezkeen, ezinbestekoa da komunitatearen hizkuntza eskubideak ere aitortzea.



TOMMASO NODARI (UNPO):

Hizkuntza aniztasuna bermatzea da eta hizkuntzen garapena ziurtatzea elkarbizitza eta bakerako oinarri funtsezkoak direla aldarrikatu nahi dugu. Hizkuntza-berdintasunaren alde eta desabantaila egoeran dauden hizkuntzen garapenerako tresna eraginkorra sortzen du Protokoloak. Hizkuntza-komuni-



tateak prozesu honetan subjektu gisa aurkeztea eta gizartearen kudeaketa justu horren berme dela aldarrikatzen.

MÓNICA PEREÑA (LINGUAPAX):

Pertsonak eta gizarteak homogeneizazio kulturalera daramatzaten indar eta inertzia indartsuak daude. Homogeneizazioak pobretzea ekarriko lukeelako, uste dugu garrantzitsua dela hizkuntza aniztasunaren balioa goraipatzea.



DAVYTH HYCKS (ELEN):

Eskerrik asko Protokoloan lan egin duen talde osoari. Ohorea izan da Paul, Haizpea eta beste antolatzaileekin lan egitea. Beti da inspirazioa hemen egotea. Oso pozik nago gaur nire ekarpena nire hizkuntza maitean, kornuallesera edo kernewek hizkuntzan egin deza-kedalako.



TOVE MALLOY (ECMI):

Berdintasuna gizarte moderno guztietan errespetatu beharreko oinarritzko balioa dela uste dugu. Berdintasuna pertsonen artean, herrien eta kulturen artean, eta hizkuntzen artean, noski. Guk defendatzen dugu munduko hizkuntza guztiak balio bera dutela, hizkuntza guztiei balio bera aitortzen diegu. Gizabanakoaren, herrien arteko berdintasunaz hitz egiten dugu. Gutxiengoaren eskubideak giza-eskubideak ditugu. Hizkuntzak pertsona orok daraman nortasun pertsonalaren zati gisa ulertzen dugu.



AURELÍ ARGEMÍ (CIEMEN):

Banakako hizkuntza-eskubideak behar bezala aitortu daitezkeen ezinbestekoa da komunitatearen eskubide horiek ere bete-betean aitortzea. Ezinezkoa da gizabanakoaren eskubideak aitortzea, pertsona hori kide den komunitatearen eskubideak ere ez badira bete-betean aitortzen. Pozten naiz orain Donostian, protokolo honi esker norbaitek lekukoa hartu duelako. Zorionak!





Paul Bilbao

KONTSEILUKo idazkari nagusia

Abanduaren 17an Kursaal jauregian amaiera eman genion Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren osatze-prozesuari. Bertan Euskal Herriko eta geure mugetatik kanpoko Europa osoko 30 hizkuntza-komunitatetako 120 eragile baino gehiagok eman genion babesa hizkuntza eskubideak bermatzeko 185 neurri zehatz biltzen dituen Donostiako Protokoloari.

Orduan esan bezala, ekitaldi hura ez zen amaiera, ibilbide baten hasiera baizik: Donostiako Protokoloa hizkuntza-eskubideen alorrean mugarri izatea da gure helburua. Protokoloa guztion tresna bilakatu da eta guztion tresna eraginkorra izan dadin, erabili egin behar dugu.

Horregatik, aurten lanari ekin diogu eta sortutako tresnari etekina ateratzen ari gataizkio etengabe. Jarraian egindakoaren berri eman nahi dizuegu.

1. Atxikimendu zerrenda, handitzen

Protokoloak, aurkeztu zenetik, hainbat erakunde berriren atxikimendua jaso du:

Unesco Etxea, IKAS Pedagogia Zerbitzuak, Societat catalana de sociolingüística, Enllaçats per la Llengua, Fundació Catalunya, Federació d'Organitzacions de la Llengua Catalana, Asociación Berciana da Lingua Xarmenta, Confederación Intersindical Galega do Ensino, Intersindical Valenciana, Asociación Cultural Faceira, El Teixu eta STEI. Illes Balearsena, hain justu.

Euskal Herriko gehiengo sindikalak ere bat egin du Protokoloarekin. LAB, ELA, STEILAS, HIRU, EHNE eta ESKK Protokoloaren inplementazioan eragile aktibo izateko konpromisoa hartu zuten.

Aurrera begira asmoa dago atxikimendu kanpaina bat irekitzeko, Euskal Herrian zein Europan.

2. Protokolotik Kaierara; zehaztasunetara

Erakunde publikoei Protokoloa bete dezaten eskatu aurretik, komeni da hizkuntza komunitate bakoitzak bere egoerara egokitzea dokumentua, alegia, neurrien hurrenkera erabakitzea, egungo egoera aztertzea, egin beharreko urratsak definitzea... Horrexegatik, lehentasuna Kaiera betetzea da; Protokoloak zehaztutako neurrien adierazleak eta epeak biltzen dituen dokumentua osatzea, hain justu.

Gurean, euskarari lotutako kaiera osatzeko prozesua jarri dugu martxan eta horretarako Euskal Herrian Protokoloa sinatu zutenengana eta eragile berriengana jo dugu.

Eragile dezente ari dira lan horretan. Halere, oraindik zuengana jo ez badugu, jar zaitezte gurekin harremanetan. Gure asmoa urte amaierarako Kaiera amaitzea da eta zuen guztien ekarpenak jaso nahiko genituzke.

3. Instituzioetan, harrera ona

Protokoloa aurkeztu diegu hainbat parlamentutako lehendakariei hala nola, Eusko Legebiltzarrekoari, Nafarroako Parlamentukoari, Galiziakoari eta Valentziakoari. Horretaz gain, Eusko Legebiltzarreko Kultura batzordean Protokoloari buruzko lan-saioa antolatu zuten eta bertan egon ginen.

Azpimarratzekoa da Korsikako parlamentuak ere gonbidatu zituela Kontseiluko ordezkariak Protokoloa aurkezteko, eta presidentek aukerak ikusi zituen legegintzaldi berrian parlamentua Protokoloari atxikitzeko.

Horrekin batera Kataluniako, Valentziako, Galiziako, Balear Uharteetako... hizkuntza-politikako arduradunek ere izan dute Protokoloaren berri.

4. Europan, bideak irekitzen

Europako Batasuneko Gutxiengo Tradizionalen, Nazio-komunitateen eta Hizkuntzen Taldeak gonbidatuta, Estrasburgoan aurkeztu genuen Protokoloa Europako Batasuneko hainbat parlamentariaren aurrean.

Horretaz gain, Europako Kontseiluko arduradun ezberdinekin elkartu ginen eta bereziki, Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Itunaren idazkari buruarekin egindako bilera azpimarratu nahiko genuke; bertan aztertu baitziren Protokoloa eta Itunaren arteko osagarritasuna bideratzeko aukerak.

Gure mugetatik kanpo, Tolosan (Okzitania), Santiago Compostelakoan (Galizia), Bartzelonan, Mallorcan, Valentzian (Herrialde Katalanak), Zaragozan (Aragoi). Leipzigen (Alemania) eta Calgiarin (Sardinia) egin dira Protokoloaren aurkezpenak bertako gizarte eragileen laguntzarekin.

Azaroan, Hungariako kanpo harremanetarako ministroak gonbidatuta, Kontseiluko ordezkariak Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Itunari buruzko lan saio batean parte hartu zuen, eta bertan Itunaren eta Protokoloaren arteko osagarritasuna izan zuen hizpide.



Simona Škrabec

Itzulpena eta Hizkuntza Eskubideen Batzordeko zuzendaria

Bi urteko lanaren ostean heldu da Donostiako Protokoloa. Zelan azaldu bere garrantzia?

Pertsonalki ez nintzen jabetzen zeinen garrantzitsua den mezua, aldaketa bat baitakar Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsaletik gaur eguneko mundura. Ideia aldatu dugu, terminologia berria behar dugu mundu globalizaturako. Katalunian bizi naiz, Bartzelonan ehuneko 25 kanpoan sortua da, hor beste era baten pentsatzen hasi behar duzu, eta ezarri dugu abiapuntua, nola egin terminologia berri hori, gida gaitzaketen printzipio berriak PENeko batzordean etorkizuneko estrategia gisa ezartzeko.

Eta hemendik aurrera?

Badago ikusezina den zerbait, baina agian hori da garrantzitsua: ideia izatea. Mundua ideia berri eta onek mugiarazten dute. Hemen formulazio berri bat dago nora joan adierazteko, orain artekoarekin, urrats berria eman du. Orain ideario berri bat dago, tresna berri bat bizi garen egoera azaltzeko. Hau da, ezer egingo ez bagenu ere, badago dokumentu bat besteei lagundu ahal izateko. Orain, ezer ez da mugituko gu mugitu ezean, orain garrantzitsua da ahalik leku gehienetan sostengua lortzea. Hor erakundeak daude, estatuak, batzuk oso hurbilekoak, Esloveniak esaterako babes osoa emango luke ondo azalduz gero, eta beste batzuk aurka egon litezke, Espainia esaterako. Estatuetan eta nazioarteko erakundeetan, Unesco eta NBE, lan bat dago egiteko, eta gero orain arteko eremua gaingitzea dator: Europar abiatu gara, baina dokumentua ez da Europarako soilik baliagarria, mundu osorako erreferentziatzeko dokumentu izateko anbizioa behar du.

Donostiako Protokoloan aipagarria izan da PENen lana, Hizkuntza-eskubideen batzordetik egindakoa batez ere.

Protokoloan nire lana izan da sinestea posible zela. Hasieratik pentsatu dut hau oso garrantzitsua zela, bai antolatzaileentzat bai PEN Internationalentzat, eta ahal beste egin dut sakonerraino inplikatzeko eta bai nik bai beste PENkide batzuek parte hartzeko. PEN oso erakunde zabala da, egoitzak ditu hainbat lekutan, beraz bi urteotan gure zentroak eta arduradunak zertan ari ginen jabetzea eta babesa ematea bilatu dut.

Eta hainbat bileratako lanaren amaiera, ehunka lagun sinadura ekitaldia izan zen.

Abenduko kongresua eta sinadura jaia

izan zen. Gauza bat ondo irteten denean zilegi da ospatzea eta jaia egitea. Oso hunkigarria izan zen; prozesua bertatik jarraitu arren, jakin arren euskaldunak oso onak zaretela gauzak antolatzen, izugarri hunkitu ninduen hainbeste jende inplikaturatik ikusteak, 700 lagun buru-belarri sinetsita, aurpegietan ikusten zen, amestu baino egiten ez zena lortu genuela. Abenduko bileran horrek jende askori ikusaraziko dio ez garela gutxi. Europar gehienak, linguistikoki euren egoera sarritan berrikusi behar duten egoera baten bizi dira.

Esan duzu, Europar sortu baina bokazio unibertsala dauka. Indian egin duzue Batzordeko bilera eta Protokoloaren aurkezpena.

Bai, Itzulpengintza eta Hizkuntza-eskubideen batzordearen bileran aurkeztu da Bengalurur, Indian. Eta konturatu gara zeinen gutxi ezagutzen dugun India, urrun dagoelako, erreferenterik ez dugulako, eta orduan konturatzen zara Europaren oso antzekoa dela. India ez da estatu bat, kontinente bat da, eta eurek bizi dituzten kontraesanak guretzat ere lagungarri izan daitezke gure urratsak ulertzeko, zer lortu dugun, eta jabetzeko ere tarteka egon litekeen obsesioen bati buruz edo malguago izatea eskatzen duen ezintasunen batez. Indiarrek izan ohi dute malgutasun hori, eta ikasi beharko genuke hobeto mugitzen, ingurura hobeto egokitzen. India eskola handia da hausnartzeko zer egin hizkuntzekin.

Protokoloak formulazio berri bat dakar nora joan adierazteko.





Euskal PEN eta PROTOKOLOA

2016ko kongresu historikora eta handik etorritako Protokolora bidea luzea izan da. PEN Internationalek rol garrantzitsua izan du: duela 90eko hamarkadanartzeko Hizkuntza Eskubideen Deklarazioan izan zuen legez, Protokoloan ere halaxe egon da Batzorde Zientifikoan. Eta Euskal PENetik hori guztia bideratzeko gure ekarpena egin dugu. Paul Bilbao Euskal PENeko zuzendaritzako kidea eta Kontseiluko idazkari nagusia izan da lan erraldoi hau aurrera egin duen taldearen gidaria. Bai Kongresura bidean, bai gerora Protokoloaren zabalkundearen, Euskal PENek lan horren testimoioa eraman du PEN bileretara.

Euskal PENeko ordezkariak Bixkekeko Kongresuan ginela jakinarazi zigun Paulek Donostiako Kultur Hiriburutzaren harira zeinen garrantzitsua izango zen horrelako Protokolo bat prestatzea. Londreseko bulegoa, PENeko zuzendaritza eta Hizkuntza Eskubideen Batzordea, Josep Maria Terricabrasen buruzagitzatik Simona Skrabec-enera igaro zen urte berean, 2016ko egitasmoa ekarrarazi genituen. Gerora hainbat bilera izan ziren Donostian, eta antzeratsu zabaltzeko egitasmoa hizkuntzek horrenbesteko garrantzia izan zuten Quebec eta Ourenseko kongresuetan.

Europarasi eta Europarako pentsatutako egitasmoa da, Kultur Hiriburutzak hala egokituta, baina bagenekien halaber Protokoloak dimentsio unibertsala behar zuela. Eta Europarasi sumatzen ez ziren bestelako erronkak ere izan ditza-keela gaiak beste kontinente eta errealitate batzuetan: askoz gehiago dira erregistro idatzirik ez duten edo oso urria duten hizkuntzak, ahozko transmisio soila dutenak, askoz handiagoa izan ohi da halaber hizkuntza kolonialen garrantzia eta indarra Afrikan edo Indian, esaterako. Eta horregatik, luxua izan da egitasmoa **Johannesburgon eta Bengalurun egin diren azken Itzulpen eta Hizkuntza-Eskubideen bileretan** aurkeztea.

Lehenera Donostiako Kultur Hiriburutza abian zen urte berean joan ginen (Protokoloa abenduan gauzatu zen), ordurako bilera ugari eginda eta bide nagusia zirriborratuta, baina oraindik ere ekarpenetarako tartea handia zegoela. Eta ohore handia izan zen bestelakoan oso zaila izan ohi den afrikar autore talde handi horrekin bat egitea. Malitika Kenyara eta Hego Afrikara, kontinenteko ahots eta

hizkuntzen topagune izan zen Johannesburgo. Antzeko auziak plazaratu ziren, frantsesez, portugesez edo ingelesez idazten zen literaturaren aldean norberarena hautatzearen garrantzia eta horrek zekartzan oztopo eta zailtasunez. Eztabaida bizi eta interesgarri hartan, geurea azaltzeko parada izan genuen, abian zen Protokoloak nola jasoko zituen herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko neurri zehatzak eta horretan zeinen garrantzitsua zen, sorreran Europarasi egindako testua izanda ere, gainontzeko hizkuntzetako idazle eta sortzaileek beren alea jartzea.

Urtebete beranduago, Protokoloa errealitatea da, orrialdeotan azaldu dugun legez. Europako bazter askotan ibili da Paul Bilbao, lekuan lekuko agintariei azaltzen. Euskal PENeko ordezkariok berriz, Hizkuntza-eskubideen beste bilera baten parte hartu dugu, kontinentez aldatu eta errealitate desberdin baten, Asian, baina era berean antzekotasun ugarirekin: Bengalurun sei hizkuntzako idazleak biltzen dituen PEN zentroa eratu da, eta Indiako eta Asiako beste hainbat taldek parte hartu dute bileran. Afrikatik Asiara, berriz ere Europatik kanpo azaltzeko aukera izan dugu. Eta orain, testu eta neurri zehatzak azalduz, guretik oso desberdina baina era berean konexio argiak dituen errealitate baten. Hizkuntzak ahoz bizirik diren, idatzirik ere sarritan idazten diren, baina hizkuntza kolonialaz gain, ingeleza eskuarki, estatuko hizkuntzaren indarra ere erantsi behar zaio, hindiera, eta gerora datoz, esaterako India hegoaldeko hizkuntzak. Eta Protokoloak errealitate horietan guztietan oinarri sendoa ezarri gura du, hizkuntzek eta hiztunek dituzten eskubideak jasoz eta horiek egikaritzeko egin beharreko urratsak alorrez alor zehaztuz.

Lviven, Ukrainan izan da azken PEN kongresua. Europara itzuli gara, ekialdera, hizkuntza-aniztasun han-diko eskualdera, historiak pisu handia daukan lurraldera, eta sortaldetik zein sartaldetik datozen presio eta hizkuntzen indarraren aurrean bertakoa babestu, sustatu eta indartzeko ahaleginean ari diren eremura. Ukrainar, hungariar, errumaniar, eslovakiar, poloniar, errusiar eta beste hainbat hizkuntzako lagunei erakutsi diegu

Protokoloa, Indiatik Quebec-era, Hego Afrikatik Gales eta Kataluniar. Eta bide luzea aurretik. Baina hortxe dago, lan handiaren emaitza, eta han-hemenka hedatzen segituko dugu datozen bilera eta kongresuetan.

